



Usurbilgo Udala

KIROL ZERBITZUEN ARAUDI NAGUSIA

LEHENENGO TITULUA XEDAPEN NAGUSIAK

1. Artikulua

Usurbilgo Udaleko Kirol sailaren xede nagusia Usurbilgo herritar orori kirola praktikan jartzeko aukera ematean datza. Horretarako kirola garatu nahi du kirol hitzaren esanahi zabalarenekin.

2. Artikulua

Araudi honek, erabiltzaile edo bezeroen eskubideak eta obligazioak eta Udalaren kirol instalazioak erabiltzeko baldintzak arautzea du helburu.

3. Artikulua

Usurbil Udalak, araudi hau argitu, aldatu edo garatzeko xedapenak edo ebazpenak emateko eskubidea bere esku gordeko du. Araudi hau eta gainerako arau bereziak (ordutegiak, prezio publikoak, e.a.) jendearen esku geratuko dira, bere bulegoetan eta instalazio bakoitzaren harrera lekuan.

4. Artikulua

Udalaren kirol instalazioak erabiltzeko eskubidea dute pertsona, ikastetxe, kirol elkarte eta taldeak; baita helburutzat kirolaren praktika sustatu eta babestea duten beste erakunde guztiek ere, beti ere instalazioetara sartzeko baldintzak betetzen dituzten bitartean.

Buruntzaldeko Kirol Zerbitzuen lankidetzaz hitzarmena sinatuta duten Udalerrietako kirol instalazioetako abonatuak Usurbilgo Udalaren kirol instalazioak erabiltzeko eskubidea dute.

Abonatu horiei instalazio bakoitzaren araudian jasota dauden eskubide eta betebeharrak aplikatuko zaizkie.

Era berean, eta noizbehinka, instalazio horiek, kirola ez den beste erabilera batzuk izan ditzakete, baina, bakoitzak bere baldintzak bete beharko ditu.

5. Artikulua

Urtero, Kirol Batzordeak, Ogasun batzordeari eskainiko diren Kirol Zerbitzuen Prezio Publikoen proposamena luzatuko dio eta Udalbatza Osoaren onespena derrigorrezkoa izango du prezio horiek indarrean jarri ahal izateko. Prezio publikoak onartu ondoren, Usurbilgo Udalak hartu behar dituen neurriak hartuko ditu prezioei buruzko informazioa eman eta ezagutarazteko.

BIGARREN TITULUA ERABILTZAILEAK

6. Artikulua

Erabiltzaile mota hauek daude:

1. Abonatuak.
2. Abonatuak ez direnak.
3. Kirol elkarteak.
4. Ikastetxeak.



Usurbilgo Udala

1. ATALBURUA. ABONATUAK

7. Artikulua

1. Edozein abono motaren onuraduna den pertsona oro abonatua izango da.
2. Abonuak familiakoak edo norbanakoak izango dira. Usurbilgo udalak bere esku hartzen du gizarte mailan interesgarriak diren pertsona edo kolektiboek hobariak emateko gaitasuna. Abonatua izateko eskatu egin behar da eta dagokion prezio publikoa ordaindu.
3. Familiako abonoak onuradun hauek izango ditu: Ezkontideak, 18 urtez beherako seme-alabak eta diru sarrerarik sortzen ez duten 18 urtez gorakoak, 25 urte arte. Etxe bizitza berean erroldatutako izatezko bikoteak, familiako abonoa egin dezakete. Familiako kide bakoitzak karnet pertsonala izango du.
4. Abonatu txartela pertsonala eta aldaezina izango da.
5. Abonu-txartela galdutakoan, berehala jakinaraziko zaio Usurbil Udalaren Kirol Sailari. Usurbil Udalaren Kirol sailak abonatu txartel berria egingo du, aldeztatik horretarako ezarritako prezio publikoa ordainduta.
6. Abonatu izateari utzi nahi dionak Usurbilgo Udalaren Kirol sailaren bulegoetan finkatutako data baino lehen adierazi behar du. Horrela egingo ez balu, hurrengo urtean ere abonatu izaten jarraitu nahi duela ulertuko da.
7. Abonuaren prezio publikoaren ordainketa helbideratze bankarioz egin liteke, banku-txartelaren bidez edo Usurbil Udalaren kontuan dirua sartuta, Usurbilgo Udalak berak esandako edozein banku erakundetan.
8. Abonuaren kuotari dagozkion erreziboak itzuliz gero edo abonatu ezarritako epean ordainduko ez balira, ordaindu ez dutenei, berehala, baja emango zaie.

2. ATALBURUA. ABONATU EZ DIRENAK

8. Artikulua

1. Abonatuak ez diren erabiltzaileek kirol instalazioetara eta hango zerbitzuetara sartzeko aukera izango dute, saio bakoitza hasi aurretik, erabili nahi duten zerbitzuarentzako ezarritako prezio publikoa ordaindutakoan.
2. Instalazioetara sartzeko prezio publikoak ez dira berdinak izango 18 urtetik gorakoentzat eta 18 urtetik beherakoentzat.
3. Kiroldegian kontrolerako dauden langileek eskubidea izango dute instalazioetara doan pertsonaren Nortasun Agiria edo adina egiaztatzeke agiria eskatzeko.




Usurbilgo Udala

3. ATALBURUA: KIROL ELKARTEAK

9. Artikulua

1. Usurbilgo Udalaren aurrean, lehiaketazko kirolaren baliozko ordezkari bakartzat hartuko direnak ondokoak izango dira: Legez eraturako kirol elkarteak eta aldi berean Euskal Herriko Kirol Elkartearen Erregistroan eta Udalaren Kirol Elkartearen zerrendan azaltzen direnak.
2. Usurbilgo Udalaren instalazioak erabiliko dituzten kirol elkarteetako kirolariek Udalaren Kirol sailaren abonatuak behar dute izan, horretarako ezarriko diren baldintzen arabera.
3. Aurreko baldintza horiek betetzen dituzten kirol elkarteek, Udalaren Kirol instalazioak erabil ditzakete, beraien egitekorako, beti ere, Udalaren Kirol sailak zehaztutako baldintzak betetzen badira.
4. Jardueretako orduen banaketa Udalaren kiroletako teknikariarekin egingo den bilera batean edo hitzarmen bidez erabakiko da.
5. Usurbilgo Udalak, kirol elkartearen jarduerak eten ditzake, egiaztatutako arrazoiak daudenean. Aldez aurretik beraiei jakinaraziko zaie.
6. Lehiaketa ofizialetarako, kirol elkarteek, idatziz, burutu behar dituzten jardueren egutegia aurkeztu beharko dute garaiz.
7. Entrenamendurako eta lehiaketa ofizialetarako ordutegiak, kirol instalazioak berak dauzkan jarduera eta ordutegietara egokituko dira. Ordutegi hauek denboraldi baterako iraupena izango dute eta ez dute antzintasun eskubiderik sortuko.
8. Ordutegiak ez dira hamabost minutu baino gehiago atzeratuko arrazoia beti ere instalazioarena ez bada. Kasu horietan, baldin eta gainontzeko programazioari eragingo balio partidua bertan behera utziko da. Atzerapen hauek sortutako gastuak erakunde antolatzaileak ordaindu beharko ditu.
9. Kirol elkarteek edo bestelako kirol erakundeek antolatutako kirol ekintzen erantzukizun zibila beraiena izango da. Horretarako, dagokion erantzun zibileko aseguruua kontratatu behar dute eta berau indarrean dagoela eta nahiko dela justifikatuko dute.
10. Kirol Elkarteek udalaren kirol instalazioetan publizitatea jarri nahi badute baimena eskatu behar dute. Baimena jasoz gero, kontrakorik esan ezean, ondorengo irizpideak bete beharko dituzte:
 - a) Publizitatea bakarrik jokatzen den esparruan eta inguruan jarriko da eta norgehiagoka ofizialak dauden garaian bakarrik.
 - b) Publizitatea ipintzeko eremura sartzeko aukera izango dute klubeko kideek beren publizitatea ipintzera. Norghegiagoka ofizialerako erretserba egin zutenean adostutako denboran bakarrik ipiniko dute.
 - c) Publizitatea ipini eta kentzeko lana elkarteak berak egingo du, jokalekua, hormak edo pintura hondatu gabe.
 - d) Publizitatea ipintzerakoan, dekorazio eta estetika arau batzuk bete beharko dira. Alkohola eta tabakoaren araua ere bete beharko da eta ikuskizun publikoarekin lotutako beste edozein arau ere bai.
11. Kirol elkarte bateko edozein taldek ezin ezingo du instalazioa erabili, adineko pertsona arduradunen bat bertan ez badago.



Usurbilgo Udala

4. ATALBURUA: IKASTETXEAK

10. Artikulua

1. Usurbilgo ikastetxeek, Udalaren kirol instalazioak erabiltzeko aukera izango dute, instalazio ordutegiaren barruan, euren eskola ordutan, prezio publikorik ordaindu gabe eta ezarriko diren baldintzetan.
2. Ikastetxeetako taldeak instalaziora sartzeko, ikastetxeko irakasle batek lagunduta sartuko dira, eta irakasle horrek ikasleen ardura izango du.
3. Eskola-kirolak udalaren kirol instalazioak erabiltzeko aukera izango du zehaztuko diren baldintzak beteta.
4. Eskolaumeen txapelketak direnean, antolatzaileek, idatziz eta garaiz, garatuko diren jardueren berri eman behar dute.

HIRUGARREN TITULUA IKASTAROAK ETA KIROL KANPAINAK XEDAPEN OROKORRAK

11. Artikulua

1. Udalaren kirol sailak urtero, kirol ikastaroak eta kanpainak antolatuko ditu biztanleri osoa kirol praktikan jartzeko asmoz, Udalaren kirol sailak duen gaitasunaren arabera.
2. Ikastaro eta kanpaina hauen helburu nagusia erabiltzaileentzako gozamenenezkoak izatea da.
3. Kirol egitarauak ahalik eta modu eraginkorrean zabalduko ditu Usurbilgo Udalaren Kirol sailak.
4. Prezio publikoak aplikatuko zaizkie ikastaroei. Baita, kanpainei eta txapelketei ere. Ikastaroetako partaideek kreditatzeko pasea jasoko dute.
5. Ikastaro, kanpaina eta txapelketak burutzeko, gutxieneko eta gehieneko pertsona kopurua osatu behar da. Beraz, ikastaroa emateko behar beste jenderik ez balego, ikastaroa ez da emango.
6. Ikastaro batean parte hartzeko lekurik egonez gero, edozein unetan izena emateko aukera dago baina, ikastaro osorako dela ulertuko da.
7. Ikastaro baten prezio publikoa ordaintzen ez bada, ikastaro horretatik baja emango zaio.
8. Udalaren kirol sailak, edozein erabiltzaileari, ikastaro batean izena eman aurretik, mediku-errekonozimendua egitea eska diezaioke, kirola praktikatzeko gaitasuna duela ziurtatzeko.
9. Udalaren Kirol Batzordeak, halabeharrezko gorabeherak eragindako kasuetan, ikastaro edo kanpainaren bat aldi baterako edo betiko eten dezake. Horrelakorik gertatuz gero, dagokion diru zatia itzuliko zaio.



Usurbilgo Udala

LAUGARREN TITULUA

INSTALAZIOETARA SARTZEKO ETA INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ARAUAK

12. Artikulua

1. Instalazioak erabiltzeko, abonua txartela edo abonua txartela duela dioen egiaztagiria aurkeztuko da, sartzeko dagoen prezio publikoa ordainduta edo ikastaroren bateko txartela erakutsita.
2. Agiri horiek, Kiroldegian kontrolerako dagoen edozein langilek eska ditzake.
3. Aldageletan ezin izango da jolastu, baloiekin, pilotekin edota beste edozer gauzarekin, ezta ere, pasilloetan, harmailetan eta kirola egiteko ez den beste edozein lekutan. Kirol eremua erabiltzeko ordutegi finkoa errespetatu egin beharko da eta behin ordua betetzen denetik, baimen berezirik egon ezean, libre utzi beharko da. Erabileraren amaiera eta instalazioaren itxiera batera gertatzen denean, gutxienez, itxeko ordua baino 10 minutu lehenago bukatuko da saioa.
4. Instalazioetara, lehiaketetara eta ikuskizunetara joandako ikusleek egin dezaketenaren erantzukizun osoa, lehiaketa edo ikuskizuna antolatu dutenen gain joango da.
5. Erabilerara txarragatik gertatu daitezken kalte-ordainak, instalazioak erabiltzeko baimena eskatu duen elkarteak edo pertsonak ordaindu beharko ditu. Txapelketa ofizialetan gertatuko balira, kalteak Federazioari eta dagokion klubari jakinaraziko zaizkie, bertako kluba kontratugilea dena izango da bertan aurkako taldeek eragindako kalteen erantzule subsidiarioa.
6. Udalaren kirol instalazioetan beti erabili beharko da kirola egiteko arropa, alegia, kirol bakoitzak eskatzen duena, eta oinetako espezifikokoak (kalekoak ez direnak). Kirolerako ez den jantzia erabiltzeko baimen berezia beharko da.
7. Udalaren kirol instalazioetara doazenek leihatilak erabiliko dituzte gauzak gordetzeko, kirola egin bitartean. Kirol jarduera amaitutakoan, leihatila libre utziko da.
8. Udalaren kirol instalazioetan ezin da jan ezta kristalezko gauzarik sartu ere. Horretarako badaude toki jakin batzuk. Barrura ezin da animaliarik sartu; aldageletatik kanpo ezin da arroparik kendu edo jantzi; emakumeentzat gordetako tokiak emakumeentzat dira eta ezin da gizonezkorik sartu ezta alderantziz ere (6 urtetik aurrera). Osasunaren, gizalegearen, higienezaren, intimitatearen eta garbitasunaren kontra doan guztia dago debekatuta.

BOSGARREN TITULUA

ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK

1. ATALBURUA. ESKUBIDEAK

13. Artikulua

Abonatu guztiek, abonua txartela aurkeztuta ondoko eskubideak izango dituzte:

1. Udaleko Kirol instalazio guztietara nahi dutenean sartzeko aukera, kasu bakoitzean zehazten diren ordutegien eta mugen arabera.
2. Prezio merkeagoa, Udalaren kirol sailak antolatzen dituen ikastaro eta kanpainetan izena ematerakoan eta matrikulatzerakoan.



Usurbilgo Udala

14. Artikulua

Abonatuak ez diren guztiek, ezarritako prezio publikoa ordainduz gero, jendearentzat zabalik dagoen ordutegian Udalaren kirol instalazioak erabiltzeko eskubidea izango dute.

15. Artikulua

Erabiltzaile guztiek, ondoko eskubide hauek dituzte:

1. Usurbilgo Udalaren Kirol sailak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak erabiltzeko eskubidea, zerbitzu bakoitzarentzat dagoen araudiaren arabera.
2. Norbaitek erreklamazioren bat edo iradokizun bat egin nahi badu, instalazioetako zerbitzuen ardura duen edozein langilearen izena eskatzeko eskubidea izango du.
3. Udalaren kirol saileko langileen aldetik tratu ona jasotzeko eskubidea.
4. Udalaren kirol sailaren aurrean, bertako instalazio edo zerbitzuei buruzko galdera, iradokizun edo erreklamazioren bat egiteko eskubidea.
5. Araudi honen ale bat jasotzeko eskubidea.
6. Udalaren kirol sailari emandako datu pertsonalak babesteko eskubidea, indarrean dagoen legerian jasota dagoen bezala.
7. Indarrean dagoen legerian jasotako beste gainerako eskubideak.

2. ATALBURUA. BETEBEHARRAK

16. Artikulua

Abonatu edo/eta erabiltzaile guztiek honako betebeharrak hauek dauzkate:

1. Instalazioak eta zerbitzuak araudian zehaztutakoaren arabera eta berau garatzen duten xedapenak diotenarekin bat erabiliko dituzte, bertako langileak erabilpenaz esandakoa betez. Horretarako dauden langileek, instalazioetara sartzeko eta erabiltzeko egiaztagiria eskatuz gero, aurkeztu egin beharko dira.
2. Instalazioak eta bertako ekipamendua ondo zaintzea. Arduragabekeriagatik edo nahita eragindako kalte-ordainak, kaltea eragin duenaren kargura joango dira.
3. Beste erabiltzaile guztien eskubideak errespetatzea.
4. Ezarritako tasak edo prezio publikoak (dagokionean) ordaintzea.
5. Udal kirol-instalazioetako langileak jakinaren gainean jartzea, funtzionamenduan okerren bat balego, zerbait apurtu bada edo araudi honetan esandakoa bete ez bada.
6. Instalazioetan gizalegea betetzea eta bertako langileen lana erraztea.
7. Indarrean dagoen legerian jasotako beste betebeharrak guztiak eta araudi honek ezarritakoak betetzea.



Usurbilgo Udala

SEIGARREN TITULUA

KIROL EKIPAMENDUAK ERABILTZEKO ARAUAK

1. ATALBURUA. IGERILEKU ESTALIAK

17. Artikulua

Igerileku estalia, igeri egitera doazenek erabiliko dute kirola egiteko edo denbora pasatzeko. Baita igerian egiten ikastera edo dakitena hobetzera doazenek ere. Bestalde, herriko elkarte eta kirol-klubek ere erabiliko dute, klub edo elkarte bakoitzak igerilekuan antolatu duena gauzatzeko.

Behar bezala igeri egiten ez dakienak edo kontuz ibiltzen ez denak istripuren bat izango balu, ez da Udalaren erantzukizuna izango. Horregatik, 8 urte baino gutxiagoko haurrak ezin izango dute igerilekua erabili, adin nagusiko pertsona baten ardurapea ez bada, edo Udalaren kirol sailak berak antolatutako ikastaro edo egitararen bateko partaideak ez badira. 19:00etatik aurrera 16 urte baino gutxiagokoek ezin izango dute igerilekura sartu, adin nagusiko pertsona baten ardurapean ez badaude.

Udalaren kirol sailak, igerilekuaren kaleak nola banatzen diren argi eta garbi adieraziko du, horretarako behar diren seinaleak jarrita; beti ere, igerilekuan egiten dena errespetatuz: bainu librea, ikastaroak, taldeen egitarauak, eta egokitzen ematen den beste edozein jardura.

Eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Osasun Sailak indarrean duen araudiak dioena betetze aldera, hona hemen igerilekurako araudia:

1. Igerilekua zabalik dagoen bitartean, beti egongo da titulazioa duen sorosleren bat. Soroslea bera igerilekuaren arduradun nagusia da eta hark esandakoa bete egin behar da.
2. Igeri egiteko ontzietan ezingo dira 77 pertsona baino gehiago ibili. Instalazioan bertan, gehien jota 232 lagun sartuko dira.
3. Derrigorrezkoa da igerilekura sartu aurretik dutxatzea.
4. Derrigorrezkoa da bainurako txanoa, bainu jantzia eta txankletak edo uretako zapatilak erabiltzea (horretarako espresuki eramanak)
5. Ezin da sartu igerilekuaren eremura kaleko arropa edo oinetakoekin.
6. Instalazioetan ezin da ez erre, ez edan, ez jan.
7. Erabat debekatuta dute igerilekura sartzea kutsakorrak diren azaleko edo bestelako gaixotasunak dituztenek.
8. Igerilekuko beste erabiltzaile guztiei begirunea zor zaie. Beraz, debekatua dago igerilekuaren inguruan korrika ibiltzea, joko edo jolas arriskutsuetan ibiltzea, kortxo-ilaretan jartzea edo haiek oratzea, irteerako plataformetan saltoka ibiltzea eta zeharkako norabidean igeri egitea.
9. Kirolean jarduteko materialen bat behar duten pertsonak sorosleari eskatu behar diote. Erabiltzeko baimena jasoz gero, erabilpena amaitutakoan, materiala sorosleari itzuliko zaio.
10. Igerian egiteko ezin dira erabili ez aletak ezta ondoko igerilarietara kalte egin diezaiekeen beste edozer tresna ere. Kirol entrenamenduak, ikastaroak edo sorosleak beste erabiltzaileei kalterik sortzen ez diela esaten duenean salbu.



Usurbilgo Udala

2. ATALBURUA. KIROL ANITZEKO ARETOA

18. artikulua

1. Kirol geletan, lehentasun osoa dute Udalaren kirol sailak berak antolatutako ikastaro eta jardueretan parte hartzen duten pertsonak. Beraz, kirol geletan horrelakoren bat balego, beste inoren sarbidea debekatuta dago.
2. Saio bakoitza bukatu ondoren, erabiltzaileek erabilitako materiala jaso eta bere lekura eramango dute.

3. ATALBURUA: FITNESS ARETOA

19. Artikulua

1. Norberaren izerdia garbitzeko beharrezkoa da instalazio horietara toalla eramatea eta erabiltzea.
2. Debekatuta dago fitness aretora janaria edo kristalezko ontziak eramatea; poltsak, motxilak, arropak, oinetakoak... aldageletako armairuetan utzi behar dira.
3. Makinen erabilpenak, bai kargengatik, bai konplexutasunagatik, berarekin dakarren arriskua kontuan izanik, gerta daitezkeen lesioak ekiditeko, 16 urtetik beherakoek ezin izango dute areto horretara sartu. Hala ere, baimen berezia dutenek aretoa erabili ahal izango dute.
4. Materiala erabili ondoren bere tokian utzi behar da.
5. Udalaren kiroletako langile teknikoak egitarau bereziak prestatuko ditu hala eskatzen duten erabiltzaileentzat. Aurrez, ezarritako prezio publikoa ordaindu behar dute.
6. Erabiltzaile guztiek makinak erabiltzeko aukera izan dezaten, oro har, makina kardiobaskularrak erabiltzeko gehieneko denbora 20 minutukoa izango da.

4. ATALBURUA: KIROL PISTAK, FRONTOIAK ETA SQUASH-AK

20. Artikulua

1. Kirol pistetan, frontoietan eta squashtan debekatua dago, zorua zikindu, markatu edo hondatzen duten zapatilak erabiltzea. Kirol sailak baimendutakoak ezik, espazio hauetan debekatua dago instalazioarekin zer ikusirik ez duten beste kirol modalitate batzuetako tresnekin jokatzeko.
2. Instalazioarenak berarekin diren kirol jarduerak sustatzen dituzten kirol elkarten beharrei erantzuna eman ondoren, libre geratzen diren orduak, edozein erabiltzailek erreserbatu ahal izango ditu.

5. ATALBURUA: BOULDER

21. Artikulua

1. Instalazioa erabiltzeko, gomendagarria da federazioaren lizentzia edukitzea.
2. Gunea erabiltzeko 16 urte beteta izan behar dira. 16 urtez beherakoek adin nagusiko pertsona batekin edo baimen berezi batekin sar litezke.
3. Ezin da zuzenean kaletik ekarritako oinetakoekin sartu. Eskaladan bakarrik erabiltzeko oinetakoekin sartu behar da instalazioan.



Usurbilgo Udala

4. Hormako presa edo heldulekuak ezin dira inola ere manipulatu, ez eta tokiz aldatu ere, instalazioko arduradunaren baimenik gabe.
5. Boulder eskaladako elementuren bat hondatuta balego, edota akatsik baleuka, arduradunari horren berri emango zaio.
6. Boulder kirola egiten den gunea garbi eta txukun mantendu beharko da, eta gauzak bere lekuan utzi beharko dira guztien mesedetarako.
7. Boulder aretoan ez da magnesio-hautsa erabiliko.
8. Erabiltzaile bakoitzak 5 minutuko denbora izango du, ez gehiago.

6. ATALBURUA: SAUNAK

22. Artikulua

1. Sauna, 16 urtetik gorako erabiltzaileentzat da. Hortik beherakoek ezingo dute erabili pertsona heldu baten ardurapean ez badaude.
2. Ordutegi aldetik saunak ordu jakin batzuk dauzkanez, orduen txandak ezar daitezke.
3. Saunan sartu baino lehen derrigorrezkoa da dutxatzea eta barrura sartu ondoren, esertzerakoan edo etzaterakoan zapiren bat erabiltzea. Debebatua dago kaleko jantziekin edo oinetakoekin sartzea.
4. Gorputzetik metalezko gaiak kendu behar dira: Belarritakoak, eskumuturrekoak, eraztunak, lepokoak... Sauna saioa biluzik egingo da.
5. Gorputzaren garbitasunarekin erabat lotuta dagoen zerbitzua izanik, hori zaintzeko hartu behar diren neurri guztiak hartzea gomendatzen da.
6. Jarrera zuzena zaindu behar da beste erabiltzaileei hitzez edo jokabidez trabarik ez egiteko. Debebatuta dago poltsikoko telefonoa erabiltzea.
7. Gorputzaren tratamenduko barrutian bizarra moztea, jatea, ura ez den beste edozer edatea, lozioak erradiadorei botatzea eta ilea tindatzea, debebatua dago.
8. Garbiketa lan bereziak egiteko aldizka Sauna itxiko da. Aldez aurretik emango zaie erabiltzaileei horren berri.

7. ATALBURUA: BELAR ARTIFIZIALEKO FUTBOL ZELAIA

23. Artikulua

1. Belar artifizialeko zelaia denez, horretarako egokiak diren oinetakoak erabili behar dira. Lehiaketa ofizialetarako, beste talde batzuetako jokalariei arau horren berri eman behar zaie.
2. 7nakako futbol txapelketetarako atek jarri edo kendu nahi direnean, ezingo dira arrastaka eraman.
3. Zelaian debebatua dago erretzea edo zelaia zikindu edo kaltetuko duten janariak hartzea (pipak, gozokiak, ...).
4. Zerbait txarto edo oker ikusiz gero, harrerakoei jakinarazi behar zaio.



Usurbilgo Udala

ZAZPIGARREN TITULUA **ERRESERBAK EGITEKO ARAUDIA**

1. ATALBURUA: KIROL ERABILPENENTZAT ERRESERBAK EGITEKO ARAUDIA

25. Artikulua

1. Kirol pistak, frontoiak, squash-ak, eta futbol zelaiak, erreserbatu daitezke.
2. Udalaren kirol sailak, udalerriko ikastetxe eta kirol elkarteekin instalazioak erabiltzeko ordutegiak adostu ondoren, libre geratu diren orduak beste erabiltzaileentzat erabili ahal izango ditu.
3. Udalaren kirol sailak, behar izanez gero, instalazioak erreserbatzeko zozketa iragarriko du. Zozketan parte hartzeko eskaerak esandako egun eta ordurako egin behar dira.
4. Zozketa bidez erreserbatzen ez diren instalazioetako orduak, zuzenean izena emanda alokatu daitezke.
5. Urteko erreserben ordainketa edozein banketxetan helbideratutako kontuaren bitartez egingo da.
6. Instalazio guztien urteko erreserbak Udalaren bulegoetan egingo dira. Noizbehinkakoak, erabili nahi den instalazioan bertan.
7. Halabeharrezkoren bat gertatuz gero, Udalaren kirol sailak erreserba eten dezake. Horrelakoetan, zenbatekoa erabiltzaileei itzuli egingo zaie.
8. Ikuskizun publikoen araudiaren eraginpean dauden kirol jarduerak 27. artikuluan jasotako arauak diotena bete beharko dute.

2. ATALBURUA: KIROLA EZ DIREN ERABILPENENTZAT ERRESERBAK EGITEKO ARAUDIA

26. Artikulua

Ikuskizunei buruzko araudia betetzen duen jardueraren bat antolatzeko Udalaren Kirol instalazioaren bat erreserbatu nahi izanez gero, honako arau hauek bete beharko dira:

1. Eskaeran, eskatzailearen datuez gain, jarduerari buruzko datu garrantzitsuenak ere adierazi beharko dira, hala nola: nork hartuko duen parte, zenbat iraungo duen eta abar. Eskaera gutxienez hilabete lehenago egin beharko da.
2. Eskaera onartuz gero, eskaera egin duenak ondorengoak egin beharko ditu, gutxienez jarduera eguna baino hamabost egun lehenago.
 - a) Instalazioa erabili ahal dezan kontratua sinatu.
 - b) Instalazioaren arduradunarekin bilera tekniko bat egin.
 - c) Dagokion tasa ordaindu.
 - d) Udalaren aldeko erantzukizun zibileko poliza bat aurkeztu, kasuan kasu ezarritakoa.
 - e) Udalaren Kirol instalazioak behar bezala zainduko direla ziurtatzeko ezartzen duen bermea jarri.



Usurbilgo Udala

Udalaren Kirol instalazioak erabiltzeko baimena duten pertsona edo erakundeek ikuskizunen arloan arauzkoak diren baimenak lortu beharko dituzte. Baimena badutela egiaztatzeko, horren kopia aurkeztu beharko dute Udalaren kirol sailean, gutxienez jarduera eguna baino bost egun lehenago; horrez gain, jardueraren larrialdi planaren kopia ere aurkeztu beharko da, halakorik behar izanez gero.

3. Instalazioak jarduera egiteko ez ezik aurreko eta ondoko entsegu eta muntatze-lanetarako ere utziko dira, eta hori guztia Udalaren kirol sailarekin hitzartu beharko da.

4. Instalazioak erabili ondoren, hasieran, zeuden bezalaxe utzi beharko dira.

5. Udalaren Kirol instalazioetan ikuskizun publikoak antolatzeke baimena duten pertsona edo erakundeek ondorengo betebeharrak izango dituzte:

a) Esparruko iragarkiak errespetatzea.

b) Ikuskizuna antolatzeak dakartzan gastuak ordaintzea.

c) Ikuskizuna muntatzeko, segurtasuna bermatzeko, sarrera zaintzeko eta ikus-entzuleak kokatzeko beharrezko langileak kontratatzea.

d) Segurtasun esparrua eta larrialdietako irteerak baimenik gabeko ibilgailuetatik eta bestelako trabetatik libre uztea.

e) Esparruan eta kanpoaldeko segurtasun eremuan inolako saltokirik ez izatea.

ZORTZIGARREN TITULUA

ZIGORRAK

27. Artikulua

Araudi honetan finkatutako arauak ez betetzea arau-haustea denez gero, zigorrak ezar daitezke.

28. Artikulua

Instalazioetako arduradunek ahalmena dute, behar den jokabidea erakusten ez dutenei ohartarazteko edo hala egin behar izanez gero, kanpora botatzeko.

29. Artikulua

Udalaren kirol instalazioak erabiltzen dituztenek hango langileek esandakoari jaramon egin behar diote, instalazioak eta kirol materialak erabili behar diren horretarako erabili eta pertsona edo ondasunei egin dakiekeen kalteei erantzunez.

30. Artikulua.

Erabiltzaile orok onartua dauka kirola praktikatzeko dakarren arriskua.

Udalaren kirol instalazioak erabiltzerakoan sor daitezkeen kalteak ezin zaizkie leporatu eta ezta ordainik eskatu ere, Usurbilgo udalari. Udalak horrelakoren bat gertatuz gero, hartuko lukeen erantzukizun bakarra ondoko kasu hauetan izango da: instalazioen ardura duten langileen errua edo arduragabekeriak eragindakoa denean edo instalazioak edo hango materialak egoera txarrean egon eta kalteren bat egiterakoan.

31. Artikulua.

Udalaren langileek esandakoari jaramonik egin ez edo esandakoaren kontrakoa egiten duenak, instalazioak eta materialak erabili behar direnerako ez eta beste zerbaitetarako erabiltzen dituenak, eta, orokorrean, lokaletan, instalazioetan edo beste erabiltzaileengan kalteren bat egiten duenak, sortutako kaltea ordaintzeaz gain, egindakoaren larritasuna kontuan hartuta, zigorra jasoko du. Hona hemen arau hauste eta zigorren sailkapena:



Usurbilgo Udala

Hutsegite oso larriak:

- Instalazioetan, Udalaren edo beste erabiltzaile batzuen ondasunak ebastea.
- Instalazioen erabilpen arauak hautsiz lokaletan, instalazioetan edo materialetan 500 euro baino gehiagoko kalteak eragitea.
- Beste erabiltzaileei eta Udalaren langileei egindako erasoak, isekak; eskandaluak eta pertsonen ohorearen edota intimitatearen aurka egindako erasoak.
- Berriro ere hutsegite larrietan erortzea.
- Bazkide-txartelak beste batzuei lagatzea, edo faltsifikatzea erabili ahal izateko.

Hutsegite larriak:

- Udalaren kirol instalazioetan desordena publikoa eragitea, baina oso larria ez baldin bada. Instalazioen erabilpen arauak hautsiz lokaletan, instalazioetan edo materialetan 100 eta 500 euro arteko kalteak eragitea.
- Beste erabiltzaileekin edo Udalaren langileekin begirunerik eza.
- Berriro ere hutsegite arinetan erortzea.
- Higienari dagozkion arauak ez betetzea.

Hutsegite arinak:

- Instalazioen erabilpen arauak hautsiz lokaletan, instalazioetan edo materialetan 100 euro baino gutxiagoko kalteak eragitea.
- Udalaren langileen argibideak ez betetzea.

Eragindako kalteen zenbatekoak bost urtero eguneratuko dira.

- ZIGORRAK

Hutsegite oso larriak:

- Sei hilabete baino gehiagoko eta lau urte bitarteko epean bazkide izateari uztea eta/edo instalazioak erabili gabe egotea.

Hutsegite larriak:

- Hilabete batetik seira arteko epean bazkide izateari uztea eta/edo instalazioak erabili gabe egotea.

Huts egite arinak:

- Hilabete bat arteko epean bazkide izateari uztea eta/edo instalazioak erabili gabe egotea.

32. Artikulua

1. Instalazioak erabiltzerakoan arau haustea Buruntzaldeko Udaletako Kirol Zerbitzuen lankidetzaren hitzarmenean partaide den beste Udal bateko abonatuak eragiten duenean, zigorra ezartzeko tramitazioa arau haustea gertatu den Udalaren organoak egingo du.

2. Zigorren akordioaren berri bai arau hausleari bai Buruntzaldean hitzartuta dauden gainerako udaletako Kirol Zerbitzuei emango zaie jakinaren gainean egon daitezkeen eta berehala aplikatu dadin.

3. Xedapen hauetan erregulatutako kirol instalazioen edo erakunde honekin hitzartuak dauden kirol instalazioen erabilpenari dagokion araudia ez betetzeagatik zigortuak izan diren pertsonen, inolaz ere ezingo dituzte erabili Araudi hau xedea duten kirol instalazioak.

4. Aurreko debekua agintari eskudunak ezarritako zigorra betetzen den bitartean egongo da indarrean.

5. Erakunde honek edo beronekin hitzartuak dauden erakundeak kautelaz suspendituta aurkitzen diren pertsonen ere ezingo dituzte instalazioak erabili



Usurbilgo Udala

33. Artikulua

Araudi honetan jasotako zigorrak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek zigortzeko duten ahalmenari buruzko 2/1998ko otsailaren 20ko legeak dioena beteaz ezarriko dira.

BEDERATZIGARREN TITULUA

AZKEN XEDAPENAK

34. Artikulua

Zerbitzu jakin batzuen erabilera zehazteko beste arau osagarri batzuk atera daitezke, erabiltzaile guztiak jakinaren gainean uzteko.

35. Artikulua

Araudi honetan aipatzen ez diren kasuak, hasiera baten behintzat, Udalaren Kirol arduradunek bideratuko dituzte.

36. Artikulua

Araudi honi egin dakizkiokeen aldaketak modu egokian emango dira argitara ahalik eta gehien ezagutarazteko.

37. Artikulua

Araudi hau, onespenerako tramite guztiak bete ondoren, indarrean sartuko da Gipuzkoako Buletin Ofizialean argitara eman eta hamabost egunera.